



PRENTSA-OHARRA

Ziudadela arte-gune erraldoi bihurtuko dute ikus-entzunezko *Tökkö* instalazio berriak, lantegiek eta antzerkiek, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra

Otras luces – Bestelako argiak Bideoartearen III. Erakustaldiak bideo-sormen proiektioekin jarraituko du, eta horrez gain, pasealdi iruzkinduak proposatzen ditu

Otras luces – Bestelako argiak neguko kultur jaialdiari esker Iruñeko Ziudadela arte-gune erraldoi bihurtuko da: *Tökkö* izango da bertan, argi- eta soinu-jolas bat gotorlekuaren erdi-erdian; argi-instalazioak paratuko dira esparrura sartzeko tuneletan; arte-lantegiak egingo dira, eta antzerki-emanaldi bat Labean, erakusketa-areto izan ohi dena agertoki izango baita egun batzuez.

Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Maider Belokik, Alorreko zuzendari Maitena Muruzabalek eta instalazioen sortzaile David Ballano eta Fermín Izkok azaldu dituzte jaialdi honen programazioaren xehetasunak eta helburua: gogoeta, gozamina jolasa eta emozioak piztea, argia ardatz duten bideosorkuntza eta ikus-entzunezko artearen bidez. Azken batean, artea kaleratu nahi da, kalitatezko proposamen garaikideen bidez eta ikusleen elkarreragin eta parte-hartzeaz, bide batez, neguko iluntasuna aprobetxatuta, ikus-entzunezko artea eta argiaren artea erakusteko. Bideoartearen erakustaldia abenduaren 21ean inauguratuko da, eta urtarrilaren 1ean amaituko da; Ziudadelan barnako jarduerak, aldiz, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra izango dira.

Ziudadelan, jarduerak *Tökkö* izango dute ardatz, gotorleku-barrutiko Erdiko biribilgunean paratuko den ikus-entzunezko instalazio interaktiboa. Elur-malutaren antzeko formaz diseinatuta, eta inguruaren naturarekin berarekin bat eginez, instalazioak led argiez osatutako 150 disko handi edukiko ditu, eta horiek zapaltzean soinu bat egingo dute eta argituko dira. Jolas interaktibo bat da, non ibilitako bide edo zaldainen arabera nor bere soinu-paisaia proposatuko baitu. Izan ere, diskoek naturaren hainbat soinu, eskala eta tonu sortuko dituzte, sentimendu eta emozioak adierazteko baliagarri.

Ez da lehiaketa bilatzen, ezta melodia edo paisaiarik onenak sortzea ere, baizik eta soinu- eta ikus-paisaia osatzeko elkarlana bultzatzen, jendea proiektuaren gain, hots, neguko aro magikoaren izaeran murgildu dadin. *Tökkö* izena finlandierako hitza da, finlandierak elurraren



egoera ezberdinak definitzeko dituen 40tik gora hitzetako bat. Gainera, gaztelaniazko fonetikan musika-tresna bat jotzearen ekintza gogorarazten du, adibidez. Argiarekiko jolasa Ziudadelara sartzeko pasabideetan ere egongo da, bai Guardia-gorputzean –Armada etorbideetik–, bai Laguntza Ateko sarbidean. Konposizio interaktibo ezberdinen bidez, bertatik igarotzen direnek sentitu ahalko dituzten esperientziak sortuko dira. Zeruak eta hodeiak irudikatuko dira, igarotzean elementuak argituko dira... Ezustekoak eta arte-baliabideak, harridura sortzeko zein argia, horren konposizioak eta itzalak erakusteko, arte gisa ulertuta.

Naturara egokitzea, artea eta zientzia uztartzen dituen adibide bat, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra martxan izango dena, 17:30etik 21:00etara, behin ilunduta, horrela proiektuaren ikus-entzunezko eta argiko edukia ahalik eta handiena izan dadin.

Soinu- eta argi- instalazio hauek David Ballanok (Concienciarte) eta Fermín Izcok diseinatu eta garatu dituzte, dekorazioan Zenzerro enpresaren laguntzaz.

Labea, agertoki; eta Arma Aretoan, arte-lantegiak

Otras Luces/ Bestelako argiak jaialdiak Ziudadelako Labea –urtean zehar erakusketa-areto izan ohi dena– agertoki bilakatuko du, bestelako arteei irekita, adibidez, antzerkiari. Abenduaren 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 30ean, 19:30ean, Labean, *Tribulaciones de Virginia* lana antzeztuko da, Valentziako Hermanos Oligor konpainiaren eskutik. Emanaldi hauetarako sarrerak bihartik, asteartetik, aurrera eskura daitezke 5 euroan, horretarako 010 – 948 420 100 telefonoetara deituta.

Antzezlanak ikuskizun inguratzaile gisa sortu da: bi antzezle eta instalazio mekaniko bat, panpinak, txirrika eta pedalek animatutako automatak, jostailu mekanikoak eta kausa-ondorioko esperimenduetan inspiratutako makinak martxan jarriko dituenak. Valentínen istorioa kontatzen da, eta hark, feria-doinu, musika-kutxa eta tangoen erritmoan, mekanismo ezberdinei eragingo die bere maitasun zein eta maitasun-ezako istorioa kontatzen duen bitartean. Ikuskizunaren atzealdean, tramankulu handi bat eraldatuz joango da emanaldian zehar.

Horrez gain, Ziudadelan, zehazki Arma Aretoan, arte-lantegiak egingo dira, 12 artistak emanak. Sormen-lantegi esperimentalak dira, parte hartzen duten artisten lanari lotuak, eta bertaratzen direnek mugimenduen ideari lotzen zaizkion kontuak landu ahalko dituzte: joan-etorria eta bidaia, denboraren joana, jarioa eta asaldura, erritmoa eta musikalitatea, hazkuntza eta dantza, besteak beste. Lantegiak abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an egingo dira, 17:30etik 19:30era, eta sarrera libre da. Jarduerak adin guztietako pertsoneri zabalik daude, nagusiki haurren parte-hartzeari eta helduen inplikazioari bide emango bazaie ere, elkarrekin gozatu eta partekatzeke esperientzia izan dadin.

Abenduaren 26, 27 eta 28an, honako artista hauek parte hartuko dute: Fermín Alvira, Miguel Ayesa, Carmen Larraz, Blanca Razquin, Marta Rueda eta Carmen Salgado. Eta urtarrilaren 2, 3



eta 4an, beste hauek: Marta Jiménez, Alfredo Murillo, Marijose Recalde, Teresa Sabaté eta Virginia Santos.

Bideoartearen III. Erakustaldia

Ziudadelako jarduera berriak *Otras luces – Bestelako argiak* Bideoartearen III. Erakustaldiari erantsi zaizkio,; hori horrela, erakustaldiaren proiektzioak hiriko zortzi gunetan ikusi ahalko dira, abenduaren 21etik (ostiralarekin) urtarrilaren 1era (asteartearekin). Uneotan, ikusi ahalko diren lanen hautaketa egiten ari da, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleen komisariotzapean, urrian Iruñeko Udalarekin hitzarmena sinatu eta gero. Hautaketan, María Palacios Cruz komisario, idazle eta abangoardia-zineman espezializatutako akademikoa ari da koordinatzaile.

Aurten kokapenak mantendu dira, eta arratsaldean saio etengabean ikusi ahalko dira, 18:30etik 21:30era, Guadalupeko bastioian, Xabier eta Eslava kaleetan, Frantziako portalean, Gayarre antzokian, Pellejerías zokoan, Seminario pasabidean eta Kondestable Civivoxeko areto gotikoan. Erakustaldi honen bidez Udalak hiri-guneak kultur xedez ireki zein indartzeko asmoa du, eta arte-adierazpen garaikideak diziplina guztietan bultzatu zein hedatzeko. Artearen, arte-adierazpenaren eta hiriko abangoardiaren aldeko apustua egiten da, sentimendu, kontakizun, hausnarketa eta pentsamenduez, bideosorkuntzaren bidez, bertako hormak zein txokoak argituz.

Otras Luces/ Bestelako Argiak jaialdiaren inguruko jarduerak abenduaren 20an, ostegunarekin, izango dute hasiera-ikuskizuna, Kondestable Civivoxean. Cabezafuego eta Beatriz Sánchezen *Bumaye!* proposamenean zuzeneko musika eta bideoarte batuko dira. Ikuskizun musikala 20:00etan hasiko da, eta sarrera libre da; zuzeneko proiektzioez lagunduta, bat-batekotasuna eta umorea izango dira nagusi. Beatriz Sánchez multimedia-artista eta marrazkilariak zuzenean erantsiko dizkio bat-batean sortutako irudiak Cabezafuego musikariaren underground-abestiei. Collage, marrazki eta eskulturen bidez, istorioak sortuko dituzte, eta webcam baten bidez proiektatuko dira.

Gazteek sortutako zinema iraungikorra

Bigarren urtez, bideoarte-erakustaldiak gazteekiko jarduera bat hartzen du barne, ikus-entzunezkoen kulturara hurbiltzeaz gain, hori parteka dezaten. *Bestelako argi txikiak* izenburupean, programa zinema iraungikorreko lantegi bat da, jada Biurdana eta Julio Caro Baroja BHletako 14 eta 18 urte bitarteko ikasleei Óscar Alegría zinemagilea ematen ari dena. Gazteek ikus-entzunezko sorkuntza txikiak egingo dituzte, eta ondoren Sanduzelai eta Arrotxapeko auzoetan aurki daitezkeen "pantailetan" proiektatuko dituzte: esekitako izarak, horma zuriak, publizitate-panelak, kamioi baten olana...

Ekimenak gazteei bat-bateko zinema ludikoarekiko grina kutsatu eta erakustea du xede, bizileku dituzten kaleetan bertan egin ditzaketen filmen bidez. *Bestelako argi txikiak* bi egunetan proiektatuko dira: abenduaren 22an (larunbatarekin) Sanduzelain, eta abenduaren 29an (larunbatarekin) Arrotxapean, 18:30etik 21:30era. Iaz esperientzia hau Txantrean egin zen,





antzeko lantegi bat eta auzoko hainbat gunetan proiektzioak egin zirela. 40 gaztek hartu zuten parte.

OTRAS LUCES – BESTELAKO ARGIAK

BIDEOARTEAREN III. ERAKUSTALDIA

- Datak: egunero, abenduaren 21etik urtarrilaren 1era
- Orduetgia: 18:30 – 21:30
- Non:
 - Guadalupeko bastioia
 - Gayarre antzokiko atzealdea
 - Pellejerías zokoa
 - Seminario pasagunea
 - Eslava kalea
 - Xabier kalea
 - Frantziako Portalea
 - Kondestable Civivoxeko areto gotikoa

INAUGURAZIO-IKUSKIZUNA: BUMAYE!

- Musika-ikuskitzuna, zuzeneko proiektzioez lagunduta
- Abenduak 20, osteguna. 20:00. Sarrera librea

BESTELAKO ARGIAK ZIUDADELAN

- **Tökkö**
 - Ikus-entzunezko instalazio interaktiboa
 - Datak: egunero, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra
 - Orduetgia: 17:30 – 21:00
 - Lekua: Ziuadadelako lorategiak
 - Parte-hartze librea
- **Tribulaciones de Virginia (Hermanos Oligor)**
 - Antzerki-ikuskitzuna
 - Datak: Abenduak 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 30
 - Orduetgia: 19:30
 - Lekua: Ziuadadelako Labea





- Sarrera librea, aurrez izena emanda 010 edo 948 420100 telefonoan
- **Arte-lantegiak**
 - Datak: Abenduak 26, 27 eta 28; urtarrilak 2, 3 eta 4.
 - Orduetgia: 17:30 – 19:30
 - Lekua: Zitudadelako Arma Aretoa
 - Sarrera: Librea

BESTELAKO ARGI TXIKIAK

- Kale-zinema eramangarri eta bat-batekoa
- Datak:
 - Abenduak 22, larunbata, Sanduzelain (Biurdana BHIko ikasleak)
 - Abenduak 29, larunbata, Arrotxapean (Julio Caro Baroja BHIko ikasleak)
- Orduetgia: 18:30 – 21:30
- Parte-hartze librea

Iruñean, 2018ko azaroaren 26n